



Jamaikako neska

Joxemari Iturralde

Pamiela Kondagintza, 41

978-84-9172-115-4

Urtea: 2019 • 240 or. • 15x21 cm

16,00 €

Dafne Zorregieta Rondaall, horixe da ene izena, aita euskaldun erbesteratu baten alaba naiz eta Mexikon finkatu-rikoko familia daukan holandar ama batena. Hortxe ezagutu zuten elkar nire gurasoek, Cuernavacan, amak garai abenturazale, hippy eta ero samarra izan zuenean eta aitak leku guztietatik ihes egiteko joera hartu zuen hartan, horixe izan baitzen eta baita munduan barrena ibiltzeko daukan joera, bere ezaugarri nagusietakoa, batetik bestera mugituz alde egitekoa, alegia. Mexikotik alde egin beharrean aurkitu zen, berak aitortzen zuenez, une zehatz batean eta arrazoi jakin batengatik, eta Jamaikan pausatu zituen oinak. Amak atzetik jarraitu zion Luzea hiriraino, eta bertan jaio nintzen ni. Gero, zenbait urte pasatuta, banandu egin ziren.

Luzea euskal hitza da, nire jaioterrikoek jakin ez arren. Aitak esaten zuen luzea euskaldunei ongi datorkien hitza dela, hauetarik asko, ia gehienak, luzeak direlako garaieran eta... sudur tamainan. Bera sudurluzea zen eta neu ere halakoxea naiz, nahiz eta sudur txikiagoa dudan, bistakoa baita Kirstin amak zertxobait lagundu zuela nire sudur-rraren tailua txikiagotzen, eskerrik asko, mam! Luzea, baita ere, hiri baten izena da. Baina ez dago Euskal Herrian, ez espainiar aldean ezta frantziarrekoan ere. Luzea Jamaikan dago. Hantxe jaio nintzen ni. Ez naiz luzaro bizi izan uharte hartan, baina denen aurrean beti izan naiz ni Jamaikako neska.



Joxemari Iturralde
(Tolosa, 1951)

Bere lehen testuak *POTT* aldizkari literarioan argitaratu zituen 1977an. Geroztik liburu ugari kaleratu ditu, hona hemen horietatik batzuk:

IPUINAK: *Dudular* (1983, Erein); *Pic-Nic zuen arbasoekin* (1985, Erein); *Nora noa?* (2001, Erein); *Filipinetan bizi den idazlearen kontuak* (1993-2006, Pamiela).

NOBELA: *Nafarroako artizarra* (1984, Elkar); *Izua hemen* (1989, Erein); *Kilkirra eta Roulottea* (1997, Erein, Kritikaren Sari Nazionala 1998); *Euliak ez dira argazkietan azaltzen* (2000, Erein); *Hyde Park-eko hizlaria* (2006, Pamiela); *Jack Destripatzailearen arrastoa* (2009, Ibaizabal); *Ilargi horia* (2012, Pamiela); *Rasputin eta San Petersburgoko gauak* (2013, Elkar) *Perlak, kolpeak, musuak, traizioak* (2015, Pamiela).

SAIAKERA: *Kaleidoskopia* (2012, Pamiela).

Egilearekin kontaktuan jartzeko: joxemariiturralde@gmail.com.

